

Telezailak Hainbat egile

Batez ere, artikuluetako lehena gustatu zait, Katixa Agirrek idatzitakoa. Adimentsua da eta oso ondo azalduta dago. Gainerako artikulua ez ditut interes handiegiz irakurri. Eta baten bat “orekarien sokatik” abiatuta ez ote zegoen iruditu zait, esaterako, ea Colombo ikertzaileak ezkertiarren bidezko aldarrikapenak sinbolizatzen ote dituen... Ufa, hori niretzat urrutiegi joatea da!

Ez dut uste Colombo telesaila ikusten zuten ikusleak ezkertiarrek zirenik, eta izan balira, a zeinen ondo disimulatu zuten! Txantxak albo batera utzita, estatubatuarrak ziren, eta horrelako telesailak xede izan ohi dituzten ikusleak Estatu Batuetako sistema ekonomiko eta politikoan oso eroso eta oso identifikatuta egon ohi dira eta, oro har, telesaila publiko-mota horri zihoakion zuzenduta.

Nire ustez, telesailak erdietsi zuen arrakasta –eta, batez ere, teleikusleek poliziako ikertzaile atipikoarekiko baina eraginkorrekiko egiten zuten identifikazioa– azalduko lukeen beste faktore bat egon badago: bekaizkeria –gizakion bidaide zaharra dena, berariaz esanda.

Aberatsak izan, arrakasta handia erdietsi, uhinaren gandorrean bizi eta, finean, amerikar ametsa gauzatuta ikusi nahi izan zutenen –baina horretatik ezer lortu ez zutenen– bekaizgo horixe..., zeren “arrakasta” lortzea eliteko futbolaria bezain zaila baita ia. Baina, ikertzaile jenialari esker, aberats-kumeak eta ahaltzuak justiziaren eskuetan –sinbolikoki– nola erortzen ziren ikustez poztu egiten ziren ezkertiarrek ez ziren, super amets amerikarra lortzeko gai izan ez ziren herritar kaxkarrak baizik¹ –nik, behintzat, hala ikusten ditut–, eta eurek lortu ez zutenek, barru-barruan halako arrangura sor bat, halako bekaizgo ilun bat gorde zuten amets hori –antza– bai bete zutenekiko. Eta sentimendu hori –bekaizgoaren sentimendua– eta sistema bidegabe (kapitalismo basatia den bezala) baten aurka kontzienteki egoteak berekin dakarren prestutasuna saski berean sartzea, nire ustez, gauzak nahastea eta, finean, gizakiaren benetako zerizana ez ikustea edo ez ulertzea baino ez da.

Moraleja: erabat politizatutako ikuspegi batetik abiatuta den-dena interpretatu nahi izateak mugatu eta nahastu egiten gaitu gauzen errealitatea eta funtsa ulertzeko orduan. Hala ere, Xabier Mendigurenek artikulua horrekin bidea zabaldu dio eztabaida bati, dialektika bati; liburu/irakurle tandemak martxan jarri eta, egin duen interpretazioa lagun, beste interpretazio batzuei bidea zabaldu die. Eta hori oso ondo dago.

Bestalde, azken artikulua, Harkaitz Canorena, eta bereziki horren bigarren zatia (“Northern Exposure” izenekoa), zertxobait erakargarriagoa egin zait, uneka behintzat.

Azkenik, “bekaizkeriaz” gain, ez dugu ahaztu behar –telesail horrek erdietsi zuen arrakasta ulertzeko– oso garrantzitsua den beste zerbait: justizia denontzat berdina dela, edo, inor ez dagoela justiziaren gaineratik. Baina esakune hau, sentimendu hau, ez da ezkertiar sentitzen garenon monopolioa, gizaki guztionak baizik, hau da, sentimendu unibertsala da, eta batzuetan telesailetan soilik betetzen bada ere, garrantzitsua da ondo

¹ “Herritar kaxkarrak” deitzen diet, baina ez aberats, ospetsu, ahaltzu eta harroputzak izatea erdietsi ez izanagatik, baizik eta desio horrekin itsutu eta helburu erridikulu hori euren bizitzetako jomuga (eta frustrazio) nagusi bihurtu izanagatik.

gorde eta irmoki atxikitzea. Eta Colombok ziur aski zertxobait lagundu zigun, alde horretatik...